



Klima-aldaketa eta lurraldea. Ikuspegi geografikoa



Ikastaroko hizkuntza ofizialak espainola eta frantsesa dira. Itzulpen zerbitzua eskuragarri izango da ikastaroa bi hizkuntzetan jarraitzeko.

Uzt. 20 2023

Kod. Z28-23

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2023

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 20 2023

Kokalekua

Cité des Arts. Baiona

Hizkuntzak

Gaztelera Frantsesa

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Klima-aldaketaren eraginek ez dituzte mugak ulertzen. Etorkizunari begira, lurraldeek, aldaketa globalaren testuinguru honetan, klima-aldaketak eragindako arrisku eta inpaktuei aurre egiteko moduak birpentsatu beharko dituzte. Udako ikastaro honetan, mugaz gaindiko ikuspegi batetik, euskal euroeskualdearen testuinguruan etorkizun hurbilean gerta daitezkeen arriskueta eragin nahi dugu. Baina, era berean, irtenbideak planteatu nahi dira lurraldearen antolamendutik, hiri-plangintzatik eta Naturan oinarritutako Irtenbideen proposamen berritzailetik. Tresna horiek guztiek lurraldeek izango duten metamorfosiari aurre egiten lagun dezakete, espazioen eta herritarren erresilientzia areagotuz, jarduera sozioekonomikoa erronka berrietara egokituz eta sinergiak indartuz, ahal den neurrian aukeraberdintasuna eta gizarte-ongizatea optimizatzeko. Ondorioz, geografia lurraldearen zientzia, lurralde-iraunkortasunarena, aldaketa globalarena eta lurralde-informazioarena izanik, ikastaroa konponbideak eskaintzera bideratuta egongo da, arriskuaren kudeaketatik, lurralde- eta hirigintza-plangintzatik, klima-aldaketari aurre egiteko, baina gizarte-osagaia ahaztu gabe eta lurralde inklusibo, bidezko eta jasangarri bat lortzeko helburuarekin.

Helburuak

Euskal euroeskualdearen lurraldearen egoera klimatikoarekiko urrakortasuna aztertzea hainbat ildo geografikotatik, eta lurralde-plangintzan eta -kudeaketan kokatzen diren estrategiak eta hobekuntza-ildoak aurkeztea.

Programa

2023-07-20

09:00 - 09:30	“Presentación” Itziar Aguado Moralejo Julien Rebotier
10:00 - 10:45	“El cambio climático y la gestión del Riesgo” Jorge Olcina Cantos
10:45 - 11:15	“Impactos climáticos en el litoral de Euskadi” Orbange Ormaetxea Arenaza
11:15 - 11:30	Atsedena
11:30 - 12:00	“Impactos climáticos en el litoral de la CAPB” Caroline Sarrade
12:00 - 12:30	“Gestión de los Riesgos Costeros en regiones transfronterizas” Julien Rebotier
12:30 - 13:00	“Cambio climático desde la perspectiva de los glaciares pirenaicos” Eñaut Izaguirre (Zoom bidez parte hartuko du)
13:00 - 13:30	“Debate” Julien Rebotier Itziar Aguado Moralejo
13:30 - 14:30	Atsedena
14:30 - 15:15	“La planificación territorial frente al cambio climático” nagore Dávila davila
15:15 - 16:00	“Efectividad de las SBN y criterios para el planeamiento resiliente al clima” Gemma García Blanco
16:00 - 17:00	“Sesión de síntesis / Mesa redonda” Julien Rebotier Itziar Aguado Moralejo

Zuzendaritza



Itziar Aguado Moralejo

UPV/EHU

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako lizentziaduna (UPV/EHU), Ekonomian doktorea (UPV/EHU) eta Gizarte Zientzietako Doktorego Sari Berezia (2008). Euskal Herriko Unibertsitateko Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Sailean irakaslea, non hiri geografiaren eta hiri plangintzaren ikasgaiak ematen baititu. Bere ikerketa-lerro nagusiak lurralde- eta hiri-ikasketak, politika publikoen ebaluazioa eta garapen jasangarria dira. Gai horri buruz artikulua ugari argitaratu ditu, batzuk honelako aldizkari hauetan: Papers in Regional Science, Geoforum, European Urban and Regional Studies edo Environment & Planning A. Gobernu eta Marketing Iraunkortasunerako Ikerketa Taldearen kidea da, Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Sistemaren barne, eta 'Hiri-bereizketa, erakunde-dentsitatea, gizarte-berrikuntza eta Espainiako hiri handietako jarrera politikoak' proiektuan parte hartzen du.



Julien Rebotier

Irakasleak



nagore Dávila davila



Gemma García Blanco



Eñaut Izaguirre



Jorge Olcina Cantos



Orbange Ormaetxea Arenaza



Caroline Sarrade

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2023-07-20 ARTE
Mugaz gaindiko Uda Ikastaroak	0 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2023-07-20 ARTE
Mugaz gaindiko Uda Ikastaroak	0 EUR

Kokalekua

Cité des Arts. Baiona

3 Av. Jean Darrigrand, 64100 Bayonne, Francia.

Akitania